

Funtsezko jarduerak

Gure enpresak ondo jardun dezan, hainbat funtsezko jarduera izan behar ditu.

Produkzioan, diseinuari dagokionez, hainbat diseinu mota egin beharko ditugu. Birziklatzeaz gain, birziklatutako plastikoarekin objektu ezberdinen diseinu originalak erakustea gustatuko litzaiguke. Ez gara produktu zehatz batean oinarrituko, eta ideia berritzaileak eta sortzaileak eraikitzeke asmoarekin, hainbat motatako diseinuak egin eta eskatuko ditugu.

Lehenik ekoizpenataz hitz egingo dugu. Hau, gure kasuan, itsasotik ateratako plastiko kantitatearen arabera aldatzen joango da, baita eskatzen diguten kantitatearen arabera. Eskatu digutena baino plastiko gehiago lortzen badugu, soberan geratutako materiala gorde egingo dugu, aurrerantzean erabiltzeko asmoarekin.

Gure produktuak saldu ahal izateko ez gara gauza batera bakarrik mugatuko. Hau da, komunikazioa bermatzeko telefonoa, sare jarduerak eta aurrez-aurreko komunikazioa erabiliko ditugu.